



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko ekainaren 15a

87. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da datu-base bakarra sor dezan, Nafarroako ezein administrazio edo entitate publikok eskain dezakeen enplegu-eskaintza eta -eskari guztia bilduko duena. Eskubide Sozialetako Batzordeak onetsia (2. or.).

#### G S A I L A:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2015eko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (3. or.).

—Nafarroako Parlamentuko 2015eko kontuei buruzko aholkularitza-txostena, Kontuen Ganberak egina (10. or.).

—Nafarroako Parlamentuko lan-egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea (21. or.).

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da datu-base bakarria sor dezan, Nafarroako ezein administrazio edo entitate publikok eskain dezakeen enplegu-eskaintza eta -eskari guztia bilduko duena.**

*ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako Batzordeak, 2015ko ekainaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da datu-base bakarria sor dezan, Nafarroako ezein administrazio edo entitate publikok eskain dezakeen enplegu-eskaintza eta -eskari guztia bilduko duena".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Datu-base bakarria sor dezan, Nafarroako ezein administrazio edo entitate publikok eskain dezakeen enplegu-eskaintza eta -eskari guztia bil-

duko duena, eta sektore pribatutik eta beste entitate eta erakunde batzuetatik –atariak barne– datozenak sartzeko borondatearekin. Hartara, eremu digital bat sortuko da, bistaratze eta elikatzeko erabilgarrirako eremu digital bat sortuko da, eta gainera euskarri guztietara egokitua eta eduki berrerrabilgarriarekin.

2. Eskaera errealari zein etorkizunekoari buruzko informazio eskuragarri guztia jaso dezan, Nafarroako Foru Komunitateko enplegarritasun beharrari aurrea hartzeko. Horretarako etengabe bilduko ditu eskaintzan inplikaturako eragileen iradokizunak eta errealitatea aztertuko du big data analisien bidez, eskura dauden iturri askotatik jasotako datuen arabera".

Iruñean, 2016ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2015eko ekitaldiko, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena egin du, 2015eko ekitaldikoa.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2015eko ekitaldiko, Kontuen Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (4. or.).
- II. Nafarroako Kontseiluaren 2015eko ekitaldiko urteko kontuei buruzko iritzia (5. or.).
  - II.1. Auditoria finantzarioko iritzia (6. or.).
  - II.2. Legezketasunaren betetzeari buruzko iritzia (6. or.).

Eranskina. Nafarroako Kontseiluaren 2015eko urteko kontuen laburpena 7. or.).

## I. SARRERA

Nafarroako Kontseilua Nafarroako Foru Komunitateko organo aholku-emaile gorena da. Bere eginkizunen jardunean, Nafarroako Kontseiluak Espainiako Konstituzioa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa eta gainerako ordenamendu juridiko guztia betetzen dela begiratu du. Kontseiluaren irizpenek ezin izanen dute egokitasun edo komenigarritasunari buruzko baloraziorik eduki.

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2016rako jarduketa-programari jarraituz, Nafarroako Kontseiluaren urteko kontuak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatuta daude kontu horiek: aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua, ondare garbiaren aldaketaren egoera-orria, eskudiruaren fluxuaren egoera-orria eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion kudeaketaren eta jardueren oroitidazki ekonomikoa.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezketasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Kontseiluak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2015eko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Honako hauek osatzen dute, funtsean, Kontseiluari 2015ean aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

- Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa.
- Nafarroako Kontseilua sortu zuen martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea, zeina aldatu baitzuen abenduaren 10eko 25/2001 Foru Legeak eta abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak.
- Otsailaren 28ko 90/2000 Foru Dekretua, Nafarroako Kontseiluaren antolamendu eta jardunbidearen Erregelamendua onesten duena, ekainaren 12ko 205/2000 Foru Dekretuak eta urtarrilaren 21eko 15/2002 Foru Dekretuak aldatu zutena.
- Apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- Ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea, kontratu publikoei buruzkoa.
- Abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Kontseiluak autonomia organiko eta funtzionala du bere jardueretan aritzeko. Haren aurrekontua Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jasotzen da aurrekontu-programa independente gisa, eta kudeaketa ekonomiko eta aurrekontukoa Nafarroako Ogasun Publikoa arautzen duten printzipio eta arauen arabera da. 2015erako Nafarroako aurrekontu orokorrak onetsi ez zirenez, Kontseiluaren 2012ko aurrekontuak luzatu ziren beste behin.

Honela laburbiltzen dugu Kontseiluaren 2015eko ekitaldiko aurrekontu-likidazioari buruzko informazio garrantzitsua:

- Urte horretan, 249.492 euroko aurrekontu-gastua egin du eta 371.675 euroko diru-sarrerak izan ditu.
- Kontseiluak 2015eran gastatutako 100 eurotik honako helburu hauetarako erabili da euro bakoitza, eta honakoen bidez finantzatu da:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza iturria	Zenbatekoa
Langileak	48	Transferentzien ondoriozko diru-sarrerak	100
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	52		
	100 e		100 e

- 2015eko abenduaren 31n, Kontseiluan bi enplegatu aritzen ziren. legelari bat (funtzionarioa) eta lehendakariaren idazkari bat (behin-behineko langilea). Urte honetako langile gastuetan 2012ko aparteko soldataren itzulketaren partziala jaso da.

- 2015ean, Kontseiluak 36 irizpen eman ditu guztira. Nafarroako Kontseiluaren ordainsari-ereduak ez du biltzen haren kideen profesionalizatzea. Kalte-ordain batzuk jasotzen dituzte txostenen eta irizpenen egile gisa parte hartzeagatik, eta dieta-sistema bat dute bileretarako bertaratzeko ordaintzeko. 2015ean, irizpen horiek egiteak 66.861 euroko kalte-ordainak eragin ditu, eta bertaratzeko dietek, berriz, 22.145 euro.

- Kontseiluak, arau indardunari jarraituz, 122.181 euro itzuliko dizkio Foru Ogasunari.

Txostenak bi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenak gure iritzi finantzarioa eta legezketasunaren betetzeari buruzkoa azaltzen du, Kontseiluaren 2015eko ekitaldiko urteko kontuei dagokionez. Txostenari eranskin bat gehitu diogu, urteko kontuen laburpen batekin.

Azterketa lana 2016ko martxoan egin dute auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantalde batek, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan lankidetzara ere izan dute.

Jarduketara honen emaitzak kontseiluburuari azaldu zitzaizkion, kasua bada egokitzat jotzen zizuten alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Epea iraganda, txostenari ez zaio alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Kontseiluko langileei, lan hau prestatzeko emandako laguntzarengatik.

## **II. NAFARROAKO KONTSEILUAREN 2015EKO EKITALDIKO URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA**

Nafarroako Kontseiluaren 2015eko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honen eranskinean.

### *NAFARROAKO KONTSEILUAREN ERANTZUKIZUNA*

Kontseiluburua da urteko kontuak egiteko ardura duena. Urteko kontu horiek, Kontseiluko Osoko Bilkurari aurkeztuko dizkio, onets ditzan, halako moduz non irudi zehatza azal dezaten Unibertsitatearen ondareari, finantza-egoerari, emaitzei eta aurrekontu-betetzeari buruz, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoko eta barne kontroleko arau-esparruari jarraituz, horren bidez prestatu eta aurkeztu ahal izateko iruzur edo akatsen ondoriozko oker materialik ez duten urteko kontu batzuk.

Urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontroleko sistemak ezarri beharko ditu.

### *NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA*

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea urteko kontuei buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezketasunari buruz.

Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta lanaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: urteko kontuetan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak fiskalizatutako ekitaldian zehar betetzeari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats ma-

terialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak urteko kontuak egin ditzan eta legezkotasuna betetzen dela bermatzeko garrantzitsua baita– inguruabarren araberako auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Azterketa honek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta urteko kontuen aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du finantza-auditoriari eta legezkotasuna betetzeari buruzko finantza- eta fiskalizazio-auditoriaren iritzi aldatu gabeari eusteko.

## II.1. AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA

Gure iritziak, urteko kontuak, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten dute, Nafarroako Kontseiluaren ondareari eta finantza-egoerari dagokienez 2015eko abenduaren 31n, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei jarraituz.

## II.2. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziak, Kontseiluaren 2015eko ekitaldiari buruzko urteko kontuetan jasotako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzailea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2016ko apirilaren 19an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas.

**ERANSKINA. NAFARROAKO KONTSEILUAREN 2015eko URTEKO KONTUEN LABURPENA****1. 2015eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA****GASTUEN EGOERA-ORRIA**

	(Eurotan)			
	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako betebeharrak	Ordaindutakoa
1. Langile-gastuak	170.304	170.304	120.589	120.589
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	251.070	251.070	128.903	128.903
6. Inbertsio errealak	25.000	25.000	-	-
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>446.374</b>	<b>446.374</b>	<b>249.492</b>	<b>249.492</b>

**DIRU-SARREREN EGOERA-ORRIA**

	(Eurotan)			
	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako eskubideak	Kobratutakoa
4. Transferentzia arruntak	421.280	421.280	371.659	371.659
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	94	94	16	16
7. Kapital-transferentziak	25.000	25.000	-	-
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>446.374</b>	<b>446.374</b>	<b>371.675</b>	<b>371.675</b>

**2. 2015eko AURREKONTU-EMAITZA**

Kontzeptuak	(Eurotan)		
	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak garbiak	Zenbatekoen aldea
1. Eragiketa ez-finantzarioak (1-7 kap.)	371.675	249.492	122.183
2. Finantza-aktiboen eragiketak (8. kap.)	-	-	-
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaitza (1+2)	371.675	249.492	122.183
II. Finantza-pasiboen alde garbia	-	-	-
III. Ekitaldiko aurrekontu-saldoa (I+II)	371.675	249.492	122.183
<b>IV. Ekitaldiko finantzaketaren superabita</b>			<b>122.183</b>

**3. DIRUZAINZTA-GERAKINA 2015eko ABENDUAREN 31n**

	(Eurotan)
	Zenbatekoa
+ I. Ekitaldiaren amaieran kobratzeko dauden zordunak Ekitaldiko diru-sarreraren aurrekontukoak Itxitako diru-sarreraren aurrekontukoak	0
- II. Ekitaldiaren amaieran ordaintzeko dauden hartzekodunak Ekitaldiko aurrekontuko diru-sarreraren aurrekontukoak Itxitako aurrekontuko diru-sarreraren aurrekontukoak Aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak	3.230
+ III. Ekitaldi amaierako funts likidoak	125.411
IV. Atxikitako diruzaintza-gerakina	0
V. Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina (I-II+III-IV)	122.181
<b>Diruzaintza-gerakina, guztira (IV+V)</b>	<b>122.181</b>
<b>Foru Ogasunari itzuli beharreko funtsak</b>	<b>122.181</b>

## 4. EGOERA-BALANTZEA 2015eko ABENDUAREN 31n

	(Eurotan)	
Jardunean	2014	2015
<i>Ibilgetu garbia</i>	10.280	6.375
Altzariak eta tresneria	3.745	2.854
Informazioa prozesatzeko tresneria	3.788	2.619
Bestelako ibilgetu materiala	2.746	902
<i>Aktibo zirkulatzailea</i>	99.590	125.411
Diruzaintza	99.590	125.411
Epe laburreko zordunak	2.257	-
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>112.127</b>	<b>131.786</b>

	2014	2015
<i>Garbia eta pasiboa</i>		
<i>Ondare garbia</i>	106.652	128.556
Ondarea	10.280	6.375
Ekitaldiko emaitza	96.372	122.181
<i>Epe laburreko hartzekodunak</i>	5.475	3.230
Aurrekontukoak ez diren bestelako hartzekodunak	-	-
Foru ogasun publikoa, PFEZa dela eta	5.475	3.230
<b>Garbia eta pasiboa, guztira</b>	<b>112.127</b>	<b>131.786</b>

## 5. 2015eko EMAITZEN KONTUA

		(Eurotan)	
Zor		Hartzeko	
120.589	Langile-gastuak	Diru-sarrera finantzarioak	16
128.905	Kanpoko lanak, hornikuntzak eta zerbitzuak	Transferentzia arruntak	371.659
3.905	Amortizazioa	Ibilgeturako diru-laguntzen emaitzen egozpena	3.905
122.181	<i>Aurrezkia (emaitza positiboa)</i>		
<b>375.580</b>	<b>Guztira</b>	<b>Guztira</b>	<b>375.580</b>

## 6. 2015eko ONDARE GARBIA IZANDAKO ALDAKETEN EGOERA-ORRIA

	(Eurotan)		
	Ondarea ondarea	Ondarea ondarea	Guztira
Amaierako ondare garbia, 2014	10.280	96.372	106.652
<i>Ekitaldiko aldeak</i>	-3.905	25.809	21.904
Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak		122.181	
Ondare garbian izandako beste alde batzuk	-3.905	-96.372	
<b>Amaierako ondare garbia, 2015</b>	<b>6.375</b>	<b>122.181</b>	<b>128.556</b>



## 7. 2015eko ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA

	(Eurotan)	
	2014	2015
<b>I. Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxuak</b>		
A) Kobrantzak	242.211	253.343
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	242.177	253.327
Kobratutako interesak eta dibidenduak	33	16
Beste kobrantza batzuk	-	-
B) Ordainketak:	-138.255	-125.673
Hornidurak	41.997	39.897
Bertaratze-dietak eta kontseilarien irizpenengatiko ordainak	83.491	73.023
Bestelako kudeaketa-gastuak	12.766	12.753
Ordaindutako interesak	-	-
<i>Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxu garbiak (A+B)</i>	<i>103.956</i>	<i>127.670</i>
<b>II. Inbertsio-jardueretako eskudiru-fluxuak</b>		
C) Kobrantzak:	-	-
Inbertsio errealeen salmenta	-	-
Finantza-aktiboen salmenta	-	-
D) Ordainketak:	-4.364	-
Inbertsio errealeen erosketa	4.364	-
Finantza-aktiboen erosketa	-	-
<i>Inbertsio-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (C+D)</i>	<i>-4.364</i>	<i>0</i>
<b>III. Finantzaketa-jardueren eskudiru-fluxuak</b>		
E) Ondarean izandako gehikuntzak	-	-
Ondareari egindako ekarpenak	-	-
F) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari egindako ordainketak	-120.598	-101.849
Ekarpenen itzulketa eta emaitzen banaketa	120.598	-101.849
<i>Finantzaketa-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (E+F)</i>	<i>-120.598</i>	<i>-101.849</i>
<b>VII. Eskudiruaren handitze/gutxitze garbia</b>	<b>-21.007</b>	<b>25.821</b>
Eskudirua ekitaldiaren hasieran	120.598	99.590
Eskudirua ekitaldiaren amaieran	99.590	125.411

## **Nafarroako Parlamentuko 2015eko kontuei buruzko aholkularitza-txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Parlamentuko 2015eko kontuei buruzko aholkularitza-txostena, egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 5. artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 204. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Nafarroako Parlamentuko 2015eko kontuei buruzko aholkularitza-txostena, Kontuen Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (11. or.).
- II. Parlamentuaren 2015eko ekitaldiko urteko kontuen aurreproiektuari buruzko iritzia (12. or.).
  - II.1. Auditoria finantzarioko iritzia (13. or.).
  - II.2. Legezketasunaren betetzeari buruzko iritzia (13. or.).
- Eranskina. Nafarroako Parlamentuaren 2015eko ekitaldiko urteko kontuen laburpena (14. or.).

## I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuak herria ordezkatzeko du eta bere esku du legegintzako ahalmena. 50 parlamentarik osatzen dute. 2015eko ekainaren 17an egin zuen Parlamentuak eratzeko bilkura, bederatzigarren legegintzaldiari hasiera emateko, 2015eko maiatzaren 24an izandako hauteskundeen emaitzen ondorioz.

Parlamentuak Osoko Bilkuraren eta batzordeen (arrunt edo berezien) bitartez funtzionatzen du. Gobernu-organoak Lehendakaria, Mahaia, Eledunen Batzarra eta Batzorde Iraunkorra dira.

Nafarroako Parlamentuko Mahaia 2016ko martxoaren 7an hartutako Erabakia betez eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1084 Foru Legeak ezartzen duenarekin bat etorritik, Parlamentuaren 2015eko ekitaldiko urteko kontuei buruzko aurreproiektuaren gaineko aholkularitza-txosten hau egin dugu.

Kontuen Ganberak Nafarroako Parlamentuaren 2015eko ekitaldiko urteko kontuak aztertu ditu. Funtsean, honako hauek osatuta daude kontu horiek: aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua, ondare garbiaren aldaketaren egoera-orria, eskudiruen fluxuaren egoera-orria eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion kudeaketaren oroitidazkia.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Parlamentuak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2015eko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Honako hauek osatzen dute, funtsean, Parlamentuari 2015ean aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

- Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bategina, Mahaia 2011ko irailaren 12an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.
- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua, Parlamentuko Erregelamendu Batzordeak 1991ko martxoaren 20an onetsia.
- Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren Antolaketari buruzko Erregelamendua, Mahaia 2012ko azaroaren 2an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.
- Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko-finantzarioa, Parlamentuko Mahaia 2000ko maiatzaren 22an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.
- Ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea, kontratu publikoei buruzkoa.
- Apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- Abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuaren aurrekontua Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartuta dago, eta haren kontuak Nafarroako urteko kontuen parte bat dira. 2015erako Nafarroako aurrekontu orokorrak onetsi ez zirenez, Parlamentuaren 2012ko aurrekontuak luzatu ziren beste behin.

Txosten honek aztergai duen urteko kontuen aurrekopiektua 2015eko martxoaren 1ean egin zuen Nafarroako Parlamentuko kontu-hartzaileak, eta 2016ko martxoaren 10ean eskuratu zitzaizgun.

Honela laburbiltzen dugu Parlamentuaren 2015eko ekitaldiko aurrekontu-likidazioari buruzko informazio garrantzitsua:

- Urte horretan, 10,97 milioiko aurrekontu-gastua egin du eta 12,84 milioiko diru-sarrerak izan ditu.
- Parlamentuak 2015eran gastatutako 100 eurotik honako helburu hauetarako erabili da euro bakoitza, eta honakoen bidez finantzatu da:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza iturria	Zenbatekoa
Langileak	58	Transferentzien ondoriozko diru-sarrerak	99
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	12	Bestelako diru-sarrerak	1
Transferentzien bidezko gastuak	27		
Inbertsio errealak	3		
	100 e		100 e

- 2015eko abenduaren 31tik, Parlamentuan 69 pertsonak egiten zuten lan: 44 funtzionario, administrazio-kontratua zuten bederatzi pertsona eta behin-behineko kontratua zuten 16 pertsona.

- Parlamentuak, arau indardunari jarraituz, 1,95 milioi euro itzuliko dizkio Foru Ogasunari.

Txostenak bi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenak gure iritzi finantzarioa eta legezketasunaren betetzeari buruzkoa azaltzen ditu, Parlamentuaren 2015eko ekitaldiko urteko kontuen aurreproiektuari dagokionez. Txostenari eranskin bat gehitu diogu, urteko kontuen laburpen batekin.

Azterketa lana 2016ko apirilean egin dute auditoriako bi teknikaririk eta auditore batek osatutako lantalde batek, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzara ere izan dute.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Parlamentuko langileei, lan hau prestatzeko emandako laguntzarengatik.

## II. PARLAMENTUAREN 2015eko EKITALDIKO URTEKO KONTUEN AURREPROIEKTUARI BURUZKO IRITZIA

Nafarroako Parlamentuaren 2015eko ekitaldiko urteko kontuen aurreproiektua aztertu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honen eranskinean.

### NAFARROAKO PARLAMENTUAREN ERANTZUKIZUNA

Parlamentuko kontu-hartzaileak urteko kontuen aurreproiektua eginen du eta legelari nagusiari aurkeztuko dio, azken horrek Parlamentuko Mahaiari helarazi eta Eledunen Batzarrak onespena eman diezaion. Urteko kontuek irudi zehatza azaldu beharko dute Parlamentuaren ondareari, finantza-egoerari, emaitzei eta aurrekontu-betetzeari buruz, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoko eta barne kontroleko arau-esparruari jarraituz, horren bidez prestatu eta aurkeztu ahal izateko iruzur edo akatsen ondoriozko oker materialik ez duten urteko kontu batzuk.

Urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontroleko sistemak ezarri beharko ditu.

### NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea urteko kontuen aurreproiektuari buruz eta egin diren eragiketen legezketasunari buruz.

Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde publikoen oinarrizko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta lanaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: urteko kontuetan arazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Azterketa honek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarri-

tako alderdi garrantzitsuak aztertutako ekitaldian zehar betetzeari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak urteko kontuak egin ditzan eta legezkotasuna betetzen dela bermatzeko garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Azterketa honek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta urteko kontuen aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du finantza-auditoriari eta legezkotasuna betetzeari buruzko finantza- eta fiskalizazio-auditoriaren iritzi aldatu gabeari eusteko.

## II.1. AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA

Gure iritziz, urteko kontuen aurreproiektuak, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten du, Nafarroako Parlamentuaren ondareari eta finantza-egoerari dagokienez 2015eko abenduaren 31n, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoiei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei jarraituz.

## II.2. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Parlamentuaren 2015eko ekitaldiari buruzko urteko kontuen aurreproiektuan jasotako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzailea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga

## ERANSKINA. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN 2015eko EKITALDIKO URTEKO KONTUEN LABURPENA

### 1. 2015eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

#### GASTUEN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	Kreditua aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeha- rrak	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Kreditu- gerakina
1. Langile-gastuak	6.614.689	158.624	6.773.313	6.337.554	6.337.554		435.759
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	2.421.966	-61.390	2.360.576	1.361.563	1.286.723	74.840	999.013
4. Transferentzia arruntak	3.031.737		3.031.737	2.909.915	2.889.772	20.143	121.822
6. Inbertsio errealak	518.210	157.481	675.691	335.497	310.165	25.332	340.194
8. Finantza-aktiboak	57.795		57.795	24.939	24.939		32.856
9. Finantza-pasiboak	89.449	-86.444	3.005				3.005
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>12.733.846</b>	<b>168.272</b>	<b>12.902.118</b>	<b>10.969.468</b>	<b>10.849.153</b>	<b>120.315</b>	<b>1.932.650</b>

#### DIRU-SARREREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Diru-bilketa garbia
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak		2.860	2.860	48.338	48.338
4. Transferentzia arruntak		12.050.532	12.050.532	12.029.248	12.029.248
5. Ondare bidezko diru-sarrerak		15.000	15.000	60.949	60.949
7. Kapital-transferentziak		634.849	634.849	656.133	656.133
8. Finantza-aktiboak		30.010	198.282	42.980	42.980
9. Finantza-pasiboak		595	595	2.327	2.327
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>12.733.846</b>	<b>168.272</b>	<b>12.902.118</b>	<b>12.839.974</b>	<b>12.839.974</b>

## 2. 2015eko EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptuak	Aitortutako esku- bide garbiak	Aitortutako bete- behar garbiak	Doikuntzak	Aurrekontu- emaitza
a. Eragiketa arruntak	12.138.534	10.609.032		1.529.503
b. Kapital-eragiketak	656.133	335.497		320.636
1. Eragiketa ez-finantzarioak guztira (a+b)	12.794.667	10.944.529		1.850.138
c. Finantza-aktiboak	42.980	24.939		18.041
d. Finantza-pasiboak	2.327			2.326
2. Finantza-eragiketak, guztira (c+d)	45.306	24.939		20.368
<b>I. Ekitaldiko aurrekontu-emaitza (1+2)</b>	<b>12.839.973</b>	<b>10.969.468</b>		<b>1.870.506</b>
Doikuntzak				
3. Gehitutako kredituak finantzatzeko funtsak			168.272	
4. Ekitaldiko finantzaketa desbideratze negatiboak				
5. Ekitaldiko finantzaketa desbideratze positiboak				
II. Doikuntzak guztira (3+4+5)			168.272	
<b>Aurrekontu-emaitza doitua (I+II)</b>				<b>2.038.778</b>

## 3. 2015eko DIRUZAINNTZA-GERAKINA

Osagaiak	2015	2014
<b>1. Funts likidoak</b>	<b>2.251.047</b>	<b>2.432.441</b>
<b>2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak</b>		<b>476</b>
(+) aurrekontukoak ez diren eragiketenak		476
<b>3. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak</b>	<b>2.164.353</b>	<b>2.264.645</b>
(+) ekitaldiko aurrekontutik	120.315	150.697
(+) aurrekontukoak ez diren eragiketenak	2.044.038	2.113.948
<b>I. Diruzaintza-gerakina, guztira (1+-2-3)</b>	<b>86.695</b>	<b>168.272</b>
II. Gehiegizko finantzaketa atxikia	86.695	168.272
III. Kobratzen zailak diren saldoak	0	0
IV. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakina (I-II-III)	0	0

## 4. EGOERA-BALANTZEA 2015eko ABENDUAREN 31n

	2015	2014
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>20.123.058</b>	<b>20.759.336</b>
<b>A) Aktibo ez-korrontea</b>	<b>17.847.297</b>	<b>18.301.828</b>
I. Ibilgetu ukiezin garbia	204.026	178.724
3. Aplikazio informatikoak	203.316	178.449
5. Bestelako ibilgetu ukiezina	710	275
II. Ibilgetu material garbia	17.619.836	18.081.506
2. Eraikinak	15.440.120	15.992.542
5. Bestelako ibilgetu materiala	2.179.716	2.088.964
Makineria eta tresnak	322.275	291.737
Altzariak	66.993	67.255
Informazio-prozesuetako ekipoa	187.860	168.607
Bestelako ibilgetu materiala	1.602.589	1.561.365
V. EPE LUZEKO INBERTSIO FINANTZARIOAK	23.436	41.599
4. Bestelako finantza-inbertsioak	23.436	41.599
Epe luzeko maileguak	23.436	41.599
<b>B) Aktibo arrunta</b>	<b>2.275.761</b>	<b>2.457.508</b>
III. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	-	476
3. Administrazio publikoak	-	476
Osasun-laguntzako maileguen aurrerakinak	-	476
V. Epe laburreko finantza-inbertsioak	24.713	24.591
4. Bestelako finantza-inbertsioak	24.713	24.591
Langileentzako epe laburreko kredituak, aurrerakinak	24.713	24.591
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	2.251.047	2.432.441
2. Diruzaintza	2.251.047	2.432.441
Kutxa, eskudirutan	2.843	1.708
Bankuak	2.248.204	2.430.733
<b>ORDENA KONTUAK</b>		
Abalak eta bermeak	3.661	6.701



	2015	2014
<b>GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>20.123.058</b>	<b>20.759.336</b>
<b>A) Ondare garbia</b>	<b>17.955.995</b>	<b>18.494.307</b>
I. Ekarrিতako ondarea	17.600.947	18.326.035
Diru bidezko ondare-ekarpena	10.896.662	11.621.750
Ondasunen ekarpena, eskubideak, lagapen eta atxikipenak	6.704.285	6.704.285
II. Sortutako ondarea	86.694	168.272
2. Ekitaldiko emaitzak	86.694	168.272
Atxikitako funtsak, gehitzeko daudenak	86.694	168.272
IV. Emaitzei aplikatzekoak zaizkien bestelako ondare-gehikuntzak	268.353	-
Finantzen bidezko diru-laguntzak	268.353	-
<b>B) Pasibo ez-korrontea</b>	-	-
<b>C) Pasibo korrontea</b>	<b>2.167.063</b>	<b>2.265.028</b>
II. Epe laburreko zorrak	2.710	384
4. Bestelako zorrak	2.710	384
Epe laburrean jasotako fidantzak eta gordailuak	2.710	384
IV. Hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	2.164.353	2.264.645
1. Kudeaketa-eragiketengatiko hartzekodunak	120.315	150.697
Aitortutako betebeharren hartzekodunak, aurrekontu arruntean	120.315	150.697
3. Administrazio publikoak	2.044.038	2.113.948
Ogasun Publikoa, PFEZarengatik hartzekodun	-	-
Ogasuna hartzekodun, kredituen itzulketak direla eta	1.952.083	2.027.837
Gizarte Segurantzza hartzekodun	91.955	86.111
<b>ORDENA KONTUAK</b>		
Abalak eta bermeak	3.661	6.701

## 5. 2015eko EKONOMIA- ETA ONDARE-ARLOKO EMAITZAREN KONTUA.

	2015	2014
2. Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	12.417.028	12.334.357
a) Ekitaldikoak	12.417.028	12.334.357
a.2) Transferentziak	12.417.028	12.334.357
Gobernuaren kapital-transferentziak	387.780	540.905
Gobernuaren transferentzia arruntak	12.029.248	11.793.452
3. Salmenta garbiak eta zerbitzu-emateak	34	20
Argitalpenen salmenta	34	20
6. Ohiko kudeaketako beste diru-sarrera batzuk	48.304	97.626
Itzulketak	20.461	86.753
Bestelako diru-sarrerak	27.843	10.873
<b>A) Kudeaketa arrunteko diru-sarrerak, guztira</b>	<b>12.465.365</b>	<b>12.432.003</b>
8. Langile-gastuak	6.401.827	6.015.558
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	5.488.675	5.132.042
Soldatak eta lansariak	2.749.447	2.426.665
Parlamentarien dietak eta garraioak	5.808	4.768
Parlamentarien bestelako gizarte-gastuak	16.697	16.854
Behin-behineko langileen soldatak	456.449	452.481
Funtzionarioen soldatak	2.207.282	2.165.106
Kontratupeko langileen soldatak	11.224	21.720
Bestelako dietak eta garraioak	10.370	10.925
Langileen bestelako gizarte-gastuak	31.399	33.523
b) Gizarte-zamak	913.152	883.517
Enplegu-emailearen kargura dagoen Gizarte Segurantza	913.152	883.517
9. Egindako transferentziak eta emandako diru-laguntzak	2.909.915	2.798.575
Transferentzia arruntak	2.909.915	2.798.575
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	1.297.290	1.289.136
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	1.134.361	1.106.753
c) Beste batzuk	162.929	182.383
12. Ibilgetuaren amortizazioa	771.865	765.635
<b>B) Kudeaketa arrunteko gastuak guztira</b>	<b>11.380.896</b>	<b>10.868.905</b>
<b>I. Kudeaketa arruntaren emaitza (aurrezkia edo desaurrezkia) (A+B)</b>	<b>1.084.468</b>	<b>1.563.099</b>
13. Ibilgetuaren galerak		750
<b>II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza</b>	<b>1.084.468</b>	<b>1.563.849</b>
15. Diru-sarrera finantzarioak	60.949	60.341
Interesak	60.949	60.341
<b>III. Eragiketa finantzarioen emaitza</b>	<b>60.949</b>	<b>60.341</b>
<b>IV. Ekitaldiko emaitza garbia (aurrezkia edo desaurrezkia)</b>	<b>1.145.417</b>	<b>1.624.190</b>

## 6. 2015eko ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN GUZTIZKO EGOERA

	I. Ekarrirako ondarea	II. Sortu-tako ondarea	IV. Bestelako ondare-gehikuntzak	Guztira
A. Ondare garbia 2014ko ekitaldiaren bukaeran	18.326.035	168.272	-	18.494.307
B. Kontabilitate-irizpideetan izandako aldaketengatik eta akatsak zuzentzeko egindako doikuntzak	-	-	-	-
C. 2015eko ekitaldiaren hasierako ondare garbi doitua (A+B)	18.326.035	168.272	-	18.494.307
D. 2015eko ekitaldian ondare garbiak izandako aldeak	-725.088	-81.577	268.353	-538.312
1. Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak	-	86.694	-	86.694
3. Ondare garbiaren beste alde batzuk	725.088	-168.272	268.353	825.170
E. Ondare garbia 2015eko ekitaldiaren amaieran (C+D)	17.600.947	86.694	268.353	17.955.995

## 7. 2015eko ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA

	2015	2014
<b>I. Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxuak</b>	<b>-158.098</b>	<b>252.982</b>
<b>A) Kobrantzak</b>	<b>12.528.640</b>	<b>12.492.345</b>
<b>2. Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak</b>	<b>12.417.027</b>	<b>12.334.357</b>
Gobernuaren kapital-transferentziak	387.779	540.905
Gobernuaren transferentzia arruntak	12.029.248	11.793.452
<b>3. Salmenta garbiak eta zerbitzu-emateak</b>	<b>34</b>	<b>20</b>
Argitalpenen salmenta	34	20
<b>5. Kobratutako interesak eta dibidenduak</b>	<b>60.949</b>	<b>60.341</b>
Interesak	60.949	60.341
<b>6. Beste kobrantza batzuk</b>	<b>50.630</b>	<b>97.626</b>
Itzulketak	20.461	86.753
Bestelako diru-sarrerak	27.842	10.873
Jasotako fidantzak	2.327	0
<b>B) Ordainketak</b>	<b>12.686.738</b>	<b>12.239.362</b>
<b>7. Langile-gastuak</b>	<b>6.309.872</b>	<b>5.929.347</b>
Lehendakaritzaren eta parlamentarien soldatak eta lansariak	2.749.447	2.426.665
Behin-behineko langileen soldatak	456.449	452.480
Parlamentarien dietak eta garraioak	5.808	4.768
Parlamentarien bestelako gizarte-gastuak	16.697	16.854
Funtzionarioen soldatak	2.207.282	2.165.106
Kontratupeko langileen soldatak	11.223	21.719
Bestelako dietak eta garraioak	10.370	10.925
Enplegu-emailearen kargura dagoen Gizarte Segurantza	821.197	797.406
Langileen bestelako gizarte-gastuak	31.399	33.422
<b>8. Egindako transferentziak eta emandako diru-laguntzak</b>	<b>2.889.772</b>	<b>2.772.000</b>
Transferentzia arruntak	2.889.772	2.772.000
<b>10. Bestelako kudeaketa-gastuak</b>	<b>1.222.449</b>	<b>1.202.761</b>
Errentamenduak	2.078	2.078
Konponketa eta kontserbazioa	303.554	236.840
Hornidurak	229.123	229.853
Bulegoko materiala	30.370	24.342
Prentsa, aldizkariak, liburuak eta bestelako argitalpenak	25.160	27.680
Garbitasuna	284.422	313.274
Zenbait gastu	89.199	110.175
Lokomozio-gastuak	10.563	6.838
Komunikazioak	37.790	59.251
Beste enpresa batzuek egindako lanak	210.190	192.429
<b>13. Bestelako ordainketak</b>	<b>2.264.645</b>	<b>2.335.254</b>
Aitortutako betebeharren hartzekoduna Aurtengo aurrekontua	150.697	195.123
Ogasun Publikoa PFEZaren hartzekodun	-	257.953
Ogasun Publikoa eskubide pasiboengatiko zorduna	-	-
Ogasun Publikoa erabilera bereziaren hartzekodun	-	-
Foru Ogasun Publikoa, kreditu-itzulketarengatik	2.027.837	1.802.469
Gizarte Segurantza hartzekoduna	86.111	79.708
<b>Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxu garbiak (+A-B)</b>	<b>-158.098</b>	<b>252.982</b>

	2015	2014
<b>II. Inbertsio-jardueretako eskudiru-fluxuak</b>	<b>-291.649</b>	<b>-289.709</b>
<b>C) Kobrantzak:</b>	<b>51.135</b>	<b>47.888</b>
3. Inbertsio-jardueretako beste kobrantza batzuk	51.135	47.888
Epe luzeko maileguak	18.163	18.814
Epe laburreko maileguak, aurrerakinak	24.817	20.401
Osasun-laguntzako maileguen aurrerakinak	8.155	8.673
<b>D) Ordainketak</b>	<b>342.784</b>	<b>337.596</b>
4. Inbertsio errealen erosketa	310.165	299.033
6. Inbertsio-jardueretako beste ordainketa batzuk	32.619	38.563
Epe luzeko maileguak	-	7.812
Epe laburreko maileguak, aurrerakinak	24.939	23.923
Osasun-laguntzako maileguen aurrerakinak	7.680	6.828
<b>Inbertsio-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+C-D)</b>	<b>-291.649</b>	<b>-289.709</b>
<b>IV. Sailkatzeko dauden eskudiru-fluxuak</b>	<b>268.353</b>	<b>-</b>
<b>J) Aplikatzeko dauden ordainketak</b>	<b>268.353</b>	<b>-</b>
Ibilgetu ez-finantzarioa finantzatzeko diru-laguntzak	268.353	-
<b>Sailkatzeko dauden eskudiru-fluxu garbiak (J)</b>	<b>268.353</b>	<b>-</b>
<b>VI. Eskudiruaren eta haren baliokide diren aktibo likidoen emendio/gutxitze garbia (I+II+IV)</b>	<b>-181.393</b>	<b>-36.726</b>
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren hasieran	2.432.441	2.469.167
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren bukaeran	2.251.048	2.432.441

## **Nafarroako Parlamentuko lan-egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 14an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu du, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak idazki bat aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2016ko otsailaren 13koa, non eskatzen baitu 2016ko ekainaren 14tik 23ra bitarteko asteetan goizeko jarduna ezartzea, betiere zerbitzuetako beharrek ahalbidetzen badute.

Kontuan izanik 2016ko ekainaren 15eko eta 20tik 23ra bitarteko egunetan ez dagoela aurreikusita arratsaldeko parlamentu-jarduerarik, eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 5. artikularekin bat, hauxe ERABAKI DUGU:

**1.** Aldatzea Mahaiaren 2015eko abenduaren 14ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia; halatan, 2016ko ekainaren 15ean eta 20tik 23ra

bitarteko egunetan lanaldia goizekoa izanen da, betiere zerbitzuetako beharrek ahalbidetzen badute, baina horrek ez du ezertan eragotziko beharrezkoak diren langileak eskuragarri egotea Legebiltzarreko lana goizeko ordutegitik kanpo egiteko, beharrezkoa izanez gero.

**2.** Aldatzea Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia, Mahaiaren 2015eko abenduaren 14ko erabakiaren bidez onetsitakoa, eta ezartzea 2016ko ekainaren 15ean eta 20tik 23ra bitarteko egunetan 09:00etatik 14:30era bitartean egonen dela zabalik.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza





